

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2. MAILA

AZTERKETA IDATZIA

2008ko URRIA

Ereduak

A B

Aztertzaileentzako orriak



HABE

ZUZENKETARAKO OHARRAK

Azterketa bakoitzari **idatziaren ebaluazio-fitxa** edo emaitzen fitxa bat dagokio. Azterketaren puntuazioa neurrerako-fitxa horretan idatzi behar da. Ikaslearen datuak fitxan idatzita izango ditu azterketaileak eta azterketaren barruan jasoko du fitxa hori.

Azterketaren batean fitxa falta bada, badaezpadako fitxa hutsak ere izango ditu, ikaslearen datuak eskuz bete eta puntuazioak bertan jartzeko.

Hiru trebetasunen emaitzak idatziko dira neurrerako fitxan:

ENTZUMENA gehienez, 20 puntu (gutxienez, 10)

IRAKURMENA gehienez, 20 puntu (gutxienez, 10)

IDAZMENA gehienez, 30 puntu (gutxienez, 15)

Emaitzen orriak beteta eta azterketak zuzenduta itzuliko dira HABEra.

Azterketaren puntuazioa 2 MAILA

Entzumena

Hiru entzungai dira.

Lehen entzungaia, **puntu 1** erantzun zuzen bakoitzeko. **6** galdera dira. Denera, 6.

Bigarren entzungaia **puntu 1** erantzun zuzen bakoitzeko. **6** galdera dira. Denera, 6.

Hirugarren entzungaia **puntu 2** erantzun zuzen bakoitzeko. **4** galdera dira. Denera, 8.

Denera, **20 puntu**, gehienez (gutxienez, 10).

Irakurmena

2. mailan hiru testu irakurriko dira.

Lehenengo testuak egiteko bakarra du.

Egitekoa: idatzi laukitxoetan esaldi bakoitza zein testuri dagokion. **8** esaldi dira (bat sobera dago), eta erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko du.

Denera, **7 puntu**, gehienez.

Bigarren testuak egiteko bakarra du.

Egitekoa: lotu zatiak testuko hutsuneekin. **5** galdera dira, eta erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko du.

Denera, **5 puntu**, gehienez.

Hirugarren testuak 2 egiteko ditu.

1. egitekoa: **bi** galderari erantzun. Erantzun zuzen bakoitzeko **2,5 puntu** lortuko ditu. Denera, **5**.

2. egitekoa: testuan hitza aurkitu. **Hiru hitz** dira eta erantzun zuzen bakoitzeko **puntu 1** lortuko du. Denera, **3**.

Bi egitekoen artean **8 puntu**, gehienez.

Hiru testuen artean **20 puntu** lor daitezke, gehienez (gutxienez, 10).

HABE

Idazmena zuzentzeko oharrak

Akatsak ikusten direnean, **ez jarri markarik testuan**. Azterketaren ertza erabili laburdurak edo zeinuak idazteko. Arkatza erabili.

Ez azpimarratu eta ez biribildu akatsa. Alboko ertzean jarri zeinua.

Zati luze eta traketsak ertzean marra bertikala jarrita seinatu.

Ez jarri zuzenketarik edo azalpenik idazlanean, are gutxiago iritzi edo iruzkinik.

Ez ezer azpimarratu.

Idazlanaren ertzetan laburdura hauek erabil litezke akats aipagarrientzat:

? ulergaitza, √ zerbait falta da, **dek** deklinabidea, **ad** aditza, **lex** lexikoa, **punt** puntuazioa, **sint** sintaxia, **erl** erlatibozkoa, **zg** zehar galdera, **nom** nominalizazioa, **konp** konparaziozkoa, **konpl** konpletiboa, **bal** baldintzazkoa, **ord** hitzen ordena, **kom** komunztadura, **lok** lokailua.

Kontuan izan ebaluazio-irizpideak eta, irizpide bakoitza baloratu ondoren (ikuspegi orokorra, baliabide linguistikoak eta testuaren zuzentasuna), jarri azken emaitza.

Gehienez, **30** puntu. Gainditzeko, gutxienez **15** (ikus eranskina).

Zuzenketa-irizpideak

■ BALORAZIO OROKORRA (eskatu zaionari nola erantzun dion eta testuaren jarraipena)

Eginkizuna bete du (eskatu zaiona erabat bete du/erdizka...)

Testu **koherentea** egin du (erraz ulertzen da / hari logikoa du...)

Kohesioa du bai esaldien artean, bai paragrafoen artean (antolatzaileak nola...)

Testu **mota** ongi aukeratu du? (eskatu zaiona **erregistro** formala/informala; testu-motaren egitura...)

Egitekhoa: Euskaltegiko aldizkarian iritzia emateko artikulua idatzi. Gaia: Non geratu dira garai bateko jokaera eta manera onak. Testu mota: azalpen-argudiozkoa (narrazioa, deskribapena... tartean). Formatua: Interneteko mezua. Ez da testu erabat formala (erdi formala, erdi informala). Ez du formula jakinik erabili behar ez sarreran eta ez amaieran.

Azterketariari azterketan bertan jakinarazi zaio testuaren aberastasuna eta zuzentasuna baloratuko zaizkiola.

Gidoia edo **puntuak** input moduan hartu behar dira. Ez dira denak nahitaez erabili behar, aukeran ematen zaizkio ikasleari.

■ BALIABIDE LINGUISTIKOAK (aberastasuna baliabideetan: sintaxian eta lexikoan)

Lexiko aberatsa (hitz, esamolde...)

Egitura sintaktiko aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak...

■ ZUZENTASUNA

Egitura morfosintaktikoen erabilera

Morfologia: izen-sintagma, aditza, deklinabidea...

Lexikoaren erabilera

Akatsek komunikazioa eragozten dute (inoiz ez/ zenbaitetan...)

Puntuazio-marken erabilera

Ortografia akatsak

Ebaluazio-orrian idatzi balorazioa eta puntuazioa, ez azterketan.

Ongi arrazoitu jarritako puntuazioa, batez ere *ez gai* baldin bada.

Birzuzenketak

Aztertzailerak zalantza handiak baditu azterketa bati puntuazioa ematerakoan, hala adieraziko du eta birzuzenketa eskatuko du (ebaluazio-fitxan idatzita). Bere emaitza jarriko du, baina zalantzak dituela esango dio HABEri emaitzak eramaten dituenean. Azterketa hori beste aztertzailer bati emango zaio berriz zuzentzeko.

Gainerakoan, HABEek erabakiko du birzuzenketak nola egin. Birzuzenketak aurten urriaren erdi aldera egingo dira eta aztertzailer guztiek hartuko dute parte.

HABE

Entzumena eta irakurmena

Bi zati horien zuzenketak ongi idatzi ebaluazio-orrrian. Puntuak ongi batu, eta **batuketa errepasatu**. Puntuazioa emateko edo erantzunen bat onartzeko zalantzarik baldin baduzu, deitu HABEra, ebaluazio atalera, eta galdetu.

A EREDUA

ENTZUMENA

1. Testua

6 x 1 = 6 puntu

A EREDUA	<i>0 adibidea</i> C	1 A	2 C	3 B	4 C	5 B	6 A
--------------------	-------------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------

2. Testua

6 x 1 = 6 puntu

A EREDUA	<i>0 adibidea</i> B	1 C	2 B	3 A	4 C	5 B	6 C
--------------------	-------------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------

3. Testua

4 x 2 = 8 puntu

A EREDUA	<i>0 adibidea</i> A	1 D	2 B	3 B	4 B
--------------------	-------------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------

Denera, **20** puntu, gehienez.

IRAKURMENA

1. Testua

7 x 1 = 7 puntu

A EREDUA	<i>0 adibidea</i>	1	2	3	4	5	6	7	8
	A	B	Sobera dago	D	A	A	A	C	B

Denera, **7** puntu, gehienez.

HABE

2. Testua

5 x 1 = 5 puntu

A EREDUA	<i>0 adibidea</i> A	1 F	2 C	3 E	4 D	5 B
--------------------	-------------------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Denera, 5 **puntu**, gehienez.

3. Testua

1. egitekoa: aukeratu erantzuna.

2 x 2,5 = 5 puntu

A EREDUA	1 B	2 C
--------------------	----------------------	----------------------

2. egitekoa: testuan esanahia aurkitu.

3 x 1 = 3 puntu

A EREDUA	<i>0 adibidea</i> <i>Hutsunea</i>	1 Zilegi izan	2 Tarteka	3 Sarraski
--------------------	--------------------------------------	-------------------------	---------------------	----------------------

Denera, 8 **puntu**, gehienez.

Irakurmena, denera **20 puntu**, gehienez.

HADE

B EREDUA

ENTZUMENA

1. Testua

6 x 1 = 6 puntu

B EREDUA	<i>0 adibidea</i> C	1 B	2 A	3 C	4 A	5 C	6 B
--------------------	-------------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------

2. Testua

6 x 1 = 6 puntu

B EREDUA	<i>0 adibidea</i> B	1 A	2 C	3 B	4 A	5 C	6 A
--------------------	-------------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------

3. Testua

4 x 2 = 8 puntu

B EREDUA	<i>0 adibidea</i> A	1 A	2 C	3 D	4 C
--------------------	-------------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------

Denera, **20** puntu, gehienez.

IRAKURMENA

1. Testua

7 x 1 = 7 puntu

B EREDUA	<i>0 adibidea</i>	1	2	3	4	5	6	7	8
	A	B	D	SOBERA DAGO	C	A	A	A	B

Denera, **7** puntu, gehienez.

2. Testua

5 x 1 = 5 puntu

B EREDUA	<i>0 adibidea</i> A	1 B	2 E	3 C	4 D	5 F
--------------------	-------------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------

Denera, **5** puntu, gehienez.

HABE

3. Testua

1. egitekoa: aukeratu erantzuna.

2 x 2,5 = 5 puntu

B EREDUA	1 A	2 B
--------------------	----------------------	----------------------

2. egitekoa: testuan esanahia aurkitu.

3 x 1 = 3 puntu

B EREDUA	0 <i>adibidea</i> <i>Hutsunea</i>	1 Estali	2 Aldamenekoa	3 Etengabekoa
--------------------	--	--------------------	-------------------------	-------------------------

Denera, **8 puntu**, gehienez.

Irakurmena, denera **20 puntu**, gehienez.

HABE

Eranskina

IDAZMENA ZUZENTZEKO BAREMOAK (ESKALA OROKORRA) 2 maila

oso onak	24-25-30
<i>Aukeran eman zaizkion puntuak oso ongi garatuak</i> <i>Testu motari dagozkion ezaugarri guztiak <u>oso ongi</u></i> <i>Testu <u>erabat</u> koherentea (ikuspuntuak oso ongi azalduak eta gaia oso ongi garatua)</i> <i>Kohesioa <u>oso ona</u> esaldietan bai paragrafoen artean</i> <i>Hiztegi multzo <u>oso zabala</u> (esamoldeak...)</i> <i>Egitura multzo <u>oso zabala</u> (forma ezohikoenak...)</i> <i>Edukirako garrantzitsuak diren hitzak</i> <i>Hiztegia zuzen erabiltzen du eta ideiak argi adieraziak</i> <i>la akatsik ez, eta baten bat badago mailatik gorakoa</i>	
onak	18-19-20
<i>Aukeran eman zaizkion puntuak ongi garatu ditu</i> <i>Puntu guztiak aipatuak (ikuspuntuak ongi azalduak eta gaia ongi garatua)</i> <i>Testu motari dagozkion <u>xehetasunetan huts egiteren bat</u></i> <i>Esaldietan kohesio <u>ona</u></i> <i>Paragrafoen arteko koherentzia eta kohesioa <u>ona</u></i> <i>Egitura multzo <u>zabala</u></i> <i>Hiztegi hedadura <u>ona</u></i> <i>Oro har, hitz garrantzitsuak edukiari begira</i> <i>Tarteka <u>akatsak, baina gehienetan ideiak argi azaltzen ditu</u></i> <i>Mailako formak zuzen, akatsen bat egin badezakete ere</i>	
gai	15-16-17
<i>Aukeran eman zaizkion puntuak nahiko ongi garatu ditu</i> <i>(ikuspuntuak nahiko ongi azalduak eta gaia nahiko ongi garatua)</i> <i>Testu motari dagozkion <u>puntu batzuetan huts egin du, batez ere zati luzeetan</u></i> <i>Erregistroari oro har ongi eusten dio, tarteka esamolde desegokiak erabili baditu ere</i> <i>Argudioak nahiko ongi erabili ditu eta ikuspuntua nahiko ongi azaldu du</i> <i>Nolabaiteko kohesioa esaldietan</i> <i>Deskribapen argiak eta nahiko xeheak, zati luzeetan arazoak izan arren</i> <i>Batzuetan koherentzia eta kohesio falta paragrafoen artean</i> <i>Egitura multzo <u>mugatua</u></i> <i>Hiztegi hedadura <u>mugatua</u></i> <i>Batzuetan oker erabilia, ideia batzuk argi komunikatzen baditu ere</i> <i>Tarteka hitz garrantzitsuak erabiltzen ditu edukiari begira, baina instrukzioetatik (eredutik) hartutako zatiren bat edo beste erabiltzen du</i> <i>Gramatikaren kontrol ona du eta, oro har, ez du ulergarritasun arazorik</i> <i>Esaldi konplexuak oro har ongi erabili ditu</i> <i>Komunikazioa eragozten duen akatsik ez du egiten</i> <i>Akats larriak ez dira ugariak, akats arinak han-hemenka</i>	
ez gai	13-14-12
<i>Arazoak izan ditu aukeran eman zaizkion puntuak garatzeko</i> <i>Ez ditu testu motari dagozkion baldintzak bete</i> <i><u>Kohesio falta</u> esaldietan eta paragrafoen artean</i> <i><u>Zenbaitetan</u> koherentziarik gabeko testua(ikuspuntuak azaltzeko eta gaia garatzeko arazoak)</i> <i>Batzuetan koherentzia eta kohesio falta paragrafoen artean</i> <i>Egitura multzo <u>oso mugatua</u></i> <i>Hiztegi hedadura <u>oso mugatua</u></i> <i><u>Zenbaitetan oker erabilia</u></i> <i>Hitz garrantzitsu gutxi erabiltzen ditu edukiari begiratuta eta instrukzioetatik (eredutik) hartutako zati batzuk erabiltzen ditu</i> <i>Komunikazioa eragozten duten akatsik ere egiten du</i> <i>Akats larriak errepikatuak eta arinak ugari</i>	
ez gai garbiak	↓9-10-11
<i>Ez du edukiari buruzko punturik garatu (ez du gaia garatu, ez ikuspunturik azaldu)</i> <i>Koherentziarik eta kohesiorik gabeko testua</i> <i>Egitura multzorik ez du</i> <i>Hiztegi hedadurarik ez</i>	

HABE

*Gehienetan hiztegia oker darabil, ideia argi gutxi komunikatzen ditu
Gehienetan akatsak egiten ditu, era askotakoak*

5 puntu. Hitz kopurua bete ez dutenak.

BIGARREN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia 50 gutxienez, 28	Irakurmena	%20	gutxienez 10	20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba 50 gutxienez, 27	Entzumena	%20	Gutxienez 10	20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10 min.
GUZTIRA		%100	gutxienez 55	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea. Emaiza bakarria emango da: **GAI/ EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.